

## BASQUE CYBERSECURITY CENTREK CERT MARKAKO HOMOLOGAZIOA ESKURATU DU

- Era horretako ekimenen partaide izateak helburu bikoitza du: euskal ekosistema gehiago babestea eta Euskadin eremu horretan egiten den guztia ezagutzera ematea.
- Aldi berean, BCSC ENISAren CSIRT mapan sartu da; hots, Europako zibersegurtasunaren agentzian.

Zibersegurtasun Euskal Zentroa [Carnegie Mellon-ek](#) jada baimendutako zentroa da **CERT** (Computer Emergency Response Team edo Larrialdi Informatikoen aurreko Erantzun Ekipoa) marka erregistratua erabiltzeko.

Carnegie Mellon-en CERT Coordination Center (CERT/CC) 1988. urtean sortu zen “Morris” harra agertzearen ondorioz; hau da, historiako lehen har informatikoa, Internetera konektatutako 6.000 ordenagailu infektatu zituena, kopuru osoaren %10 inguru. Har horren sortzaileari, Robert Tappan Morrisi, hiru urteko kartzela-zigorra ezarri zioten, komunitateari 400 orduko zerbitzua ematera eta 10.050 dolarretako isuna ordaintzera zigortzearekin batera. Gertaera hura kudeatzeko, nazioarteko erakunde ezberdinek batera egin behar izan zuten lan, era horretako mehatxuei aurre egiteko modu koordinatuan lan egitea agerian geratuz, eraginkorragoak izateko eta indarrak ez bikoizteko helburuarekin.

CERT marka erosteko eta erabiltzeko eskubidea izateko, eskatzen duten enpresa eta erakunde ezberdinek **Carnegie Mellon Unibertsitatearen baliozkotzeko prozesu oso bat** igaro behar izaten dute. CERT marka erabiltzeko baimendutako erakundeen zerrenda osoa kontsulta daiteke [hemen](#). Horien guztien artean, **BCSCrenaz gain, honako hauek bezalako hainbat euskal enpresa nabarmentzen dira: ITS Security, S21Sec / Nextel, Entelgy, eta duela gutxi P3rseus**. Guztiak zibersegurtasunaren arloan euskal ekosistemak duen potentzialaren adibide argia dira, [San Franciscoko SA Conferencen](#) jada erakutsi zen moduan.

### CSIRT.es, FIRST, ENISA eta CERT marka


CERT markaren homologazio-prozesua gainditzeaz gain, Basque Cybersecurity Centre [ENISAren CSIRTs mapan](#) (European Union Agency for Network and Information Security, Zibersegurtasunerako Europako Agentzia)

info@bcsc.eus | 945 010 059

Parque Tecnológico de Álava  
Albert Einstein. 46-3ª – Ed. E7 01510  
Vitoria-Gasteiz



sartu dute. [ENISA](#) ezagutza espezializatuen zentroa da, EBeri eta osatzen duten herrialdeei zibersegurtasun arloko gorabeherak prebenitzeko, detektatzeko eta horiei erantzuna emateko hobeto prestatuta egoten laguntzen diena. Gaur egun, guztira 387 CSIRT daude mapan sartuta, eta honela banatzen dira:



Mapa horretan, BCSCrekin batera, **beste 23 erakunde daude**, estatuaren barruan jarduteko, zibersegurtasunaren inguruko mehatxu ezberdinei aurre egite aldera.

laz, BCSCC [CSIRT.es](#) barruan sartu zen; hain zuzen ere, irabazi asmorik gabeko ekimena da, segurtasun informatikoko gertaerei erantzuna emateko talde publikoek zein pribatuek osatua, eta horien jarduera-eremua Espainiako estatuan kokatzen da. Tartean, Estatuako Segurtasuneko Indar eta Kidegoetakoak sartzen dira, Ertzaintza bera.

Era berean, 2018ko urrian, zentroaren lana aitortua izan zen [FIRSTera](#) atxikitzearekin; hau da, Zibersegurtasuneko Gertaerei Erantzuna emateko Ekipoen Zentroen munduko foro handiena. Gaur egun, 470 erakundetik gora daude, pribatuak edo publikoak, militarrek, hezkuntzakoak edo gobernuarenak, kontinente guztietan banatuta, eta zibermehatxuei buruzko informazioa partekatzen dute, babestuago egotearren.

Era horretako ekimenen zati izateak helburu bikoitza du: euskal ekosistemaren babesa indartzea eta Euskadin arlo horretan egiten den guztia ezagutzera ematea.

[info@bcsc.eus](mailto:info@bcsc.eus) | 945 010 059

Parque Tecnológico de Álava  
Albert Einstein. 46-3ª – Ed. E7 01510  
Vitoria-Gasteiz



**info@bcsc.eus | 945 010 059**

Parque Tecnológico de Álava  
Albert Einstein. 46-3ª – Ed. E7 01510  
Vitoria-Gasteiz

